LAN-PENTSIO-BIZITZA

# DUINA U30 GREBA OROKORRA

URTARRILA / ENERO

# Hamaika arrazoi grebarako

Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan “planto” egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugarik herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu genuen, prozesu parte-hartzaile baten bidez. Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditugu. Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia.

Egoera ikusita beharrezkoa iruditzen zaigu jauzi bat ematea lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokan. Konbentzimendu hirukoitz batek batu gaitu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira.

Finean, bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanez. Eredu horren ardatz nagusiak hauek dira: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka, jendartearen beharren arabera antolatua (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Honela gauzak, erabaki dugu krisiaren aitzakian azken hamarkadetan azkartu den lan eta bizi baldintzen prekarizazioari mugak jartzea. Lan baldintza, pentsio eta bizitza duinak bermatuko dituzten neurrien aldeko mobilizazio dinamika abiatzea adostu dugu, honako Aldarrikapen Taula oinarri hartuta:

**2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsio-murrizketak indargabetzea:**

- Erretiroa 65 urterekin.
- Erretiro Aurreratua 61 urterekin, 30 urte kotizatuta izanez gero. Koefiziente murriztaileak arintzea.
- Erretiroa hartu ahal izateko adina jaisteko aukera zabaltzea sektore berrietara, bereziki nekagarriak eta arriskutsuak diren sektoreetara, adibidez, garraio-sektorea.
- Pentsioa kalkulatzeko 15 urte hartzea kontutan.
- Pentsioen eros-ahalmena bermatzea (gutxienez KPIaren pareko igoera)
- Pentsioen jasangarritasun-faktorea kentzea.

**Beste neurri batzuk pentsioei buruz:**

- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa.
- Pentsio sistemaren finantziazioa bermatzea, kotizazio sozialen eta zergen bidez.
- Lanaldi partzialeko kontratuetan kotizazioak zenbatzerakoan zigorrik ez aplikatzea. Lan egindako egun bakoitzeko, kotizatutako egun bat.

**Zapateroren eta Raxoiren lan-erreformak bertan behera uztea:**

- Hitzarmen kolektiboetan ultraktibitate mugagabea.
- Herrialdeko hitzarmenen aplikazioa lehenestea estatu mailako hitzarmenen gainetik.
- Beheko esparruko hitzarmen batek goragoko esparruko beste baten baldintzak okertzeko aukerarik ez izatea.
- Lan-eskubideetan egindako murrizketak atzera botatzea.

BURUJABETZA ALDAKETA SOZIALERAKO

carta de los derechos sociales
euskal herriko eskubide sozialen karta

ELA | LAB | STEILAS | ESK | HIRU | ETXALDE | EHNE

**Beste neurri batzuk enpleguari eta pentsioei buruz:**

- Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala eta pentsio-arrakala amaitzea.
- Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata.
- Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioan ematen den iruzurra zigortzea.
- Lanaldia 35 ordura jaistea, soldata gutxitu barik.
- Bereziki emakumeei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.
- Azpikontratatutako enpleguan subrogaziorako eskubidea bermatzea.
- Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.
- Kontratazioan sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu-identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia-jardueraren araberako diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.
- Kontratazioan prekarizazio-formula oro kentzea (etxeko langileen erregimen berezia, autonomo faltsuak, uberizazioa...)
- Klausula sozialak ezartzea administrazioko azpikontratetan.
- Lanera bizirik itzultzeko eskubidea. Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europar Batasunekoekin parekatu arte, eta lan-istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza plan zorrotz bat ezartzea.
- Etxeko lanak eta zaintza lanak duintzea eta gainerako enpleguetan dauden eskubide berberak aitortzea.

**Eskubide sozialen bermea:**

- Menpekotasun egoeran dauden pertsona guztiei laguntza-zerbitzu publiko, unibertsal eta doakoa legez bermatzea.
- Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta Errenta Bermatua %100ean parekatzea Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekin, eta azken hori %50 igotzea bi pertsonak osatutako ohiko unitateetan, eta beste %50 igotzea 3 pertsona edo gehiagoko unitateetan.
- Alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea legez bermatzea, EHko Eskubide Sozialen Kartaren Herri Ekimen Legegileak ezarritako baldintzetan.

**Lan-harremanetarako eta babes-sozialerako esparru propioa:**

- Euskal Herriko langileek eskubidea izatea pentsio sistema publikoa eta pentsio duinak bermatzeko modurik onena erabakitzeko.
- Lan-harremanetarako gure eredu propioa eta negoziazio kolektiboko marko propioa erabakitzeko eskubidea, kanpoko esku-hartzerik gabe.
- EAEko eta Nafarroako instituzioei dei egiten diegu euren erantzukizunak onartu eta bide horretan aurrera egiteko neurriak har ditzaten, gisa honetako ekimenekin:

1. Gutxieneko pentsioa legez 1.080euro arte osatzea, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen bidez.

2. Enplegu publikoari dagokionean (zuzenekoa nahiz azpikontratatua): 1.200euroko gutxieneko soldata 35 orduko gehienezko lanaldia ezartzea; gutxienez herrialdeko hitzarmen sektoriala aplikatzen dela bermatzea, baita beste klausula sozial batzuk ere.

3. Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren inguruan eta etxebizitza eskubidearen alde Eskubide Sozialen Kartak sustatutako Herri Ekimen Legegilea onartzea.

4. Lan arloan ematen den soldata arrakalaren, diskriminazioaren eta indarkeria matxistaren aurkako Lege bat onartzea.

**Halaber, EAEko eta Nafarroako patronalei eskatzen diegu lan-baldintzak prekarizatzeari utzi eta idatzi honetan jasotako aldarrikapen laboralei erantzuteko.**




carta de los derechos sociales
euskal herriko eskubide sozialen karta

ELA | LAB | STEILAS | ESK | HIRU | ETXALDE | EHNE

### Otras medidas sobre el empleo y pensiones

- Acabar con la brecha salarial y de pensiones entre hombres y mujeres.
- Salario Mínimo de 1.200 euros mensuales.
- Promoción del empleo estable y persecución del actual fraude en la contratación.
- Reducción de la jornada a 35 horas sin reducción de salario.
- Eliminación de las jornadas parciales impuestas especialmente a las mujeres
- Garantizar el derecho a la subrogación en el empleo subcontratado.
- Reversión de los recortes aplicados en los servicios públicos y desarrollo de los mismos.
- Garantizar la no discriminación contractual en función del sexo, lugar de origen, ideología, identidad sexual, diversidad funcional o actividad económica.
- Eliminación de toda fórmula contractual de precarización (régimen especial de empleadas de hogar, falsos autónomos, uberización,...)
- Establecimiento de cláusulas sociales en las subcontratas de la administración.
- Derecho a volver con vida al trabajo. Ampliar las plantillas de Inspección de trabajo hasta homologarlas con la media de la Unión Europea y establecer un plan de acción radical contra los accidentes laborales y las enfermedades profesionales.
- Los trabajos domésticos y de cuidados serán dignificados y dispondrán de derechos iguales al resto de empleos.

### Garantía de derechos sociales

- Garantizar el derecho por ley a que todas las personas en situación de dependencia tengan garantizada la cobertura de la misma por un servicio público, universal y gratuito.
- Establecimiento de la RGI y RG en el 100% del SMI, con un aumento del 50% del SMI para el caso de las unidades convencionales de dos personas y de un 50% adicional para las de 3 o más componentes.
- Garantizar por ley el derecho a acceder a una vivienda de alquiler social, en los términos establecidos en la ILP de la Carta Derechos Sociales de EH.

### Marco propio de Relaciones Laborales y Protección Social

- El derecho de trabajadoras y trabajadores de Euskal Herria a decidir la mejor manera de garantizar el sistema público de pensiones y unas pensiones dignas.
- Derecho a decidir nuestro propio modelo de relaciones laborales así como un marco propio de negociación colectiva sin ningún tipo de injerencia.
- Instar a las instituciones de la CAPV y Navarra a que asuman sus responsabilidades y tomen las medidas necesarias para avanzar en ese camino, mediante acciones como:

  1. Complementar por Ley la pensión mínima a 1.080 euros a través de los presupuestos del Gobierno Vasco y del Gobierno de Navarra.
  2. En relación al empleo público (directo o subcontratado): establecimiento del salario mínimo de 1.200 euros y de la jornada máxima de 35 horas; garantía de aplicación, como mínimo, del convenio sectorial del territorio, así como de otras cláusulas sociales.
  3. Aprobar la ILP promovida por la CDS sobre la RGI y el derecho a la vivienda.
  4. Aprobar una Ley contra la brecha salarial, la discriminación y la violencia machista en el ámbito laboral.

**Asimismo, exigimos a la patronal de la CAPV y de Navarra que renuncien a la precarización de las condiciones laborales y den respuesta a las reivindicaciones laborales recogidas en este documento.**




carta de los derechos sociales
euskal herriko eskubide sozialen karta

ELA | LAB | STEILAS | ESK | HIRU | ETXALDE | EHNE

TRABAJO-PENSIÓN-VIDA
# DIGNA U30 HUELGA GENERAL
URTARRILA ENERO

# Sobran razones para la huelga

El movimiento de pensionistas de Hego Euskal Herria lleva ya dos años movilizándose todas las semanas por unas pensiones dignas, y en un momento de su trayectoria han planteado rebasar el estricto ámbito de las pensiones y llegar más allá en sus reivindicaciones.

Hace ya seis años que numerosos sindicatos y agentes sociales elaboramos, mediante un proceso participativo, una carta que recoge los derechos sociales de la ciudadanía. Y, desde entonces, se han venido organizando actos en favor de los derechos citados. Ahora, debido al reciente planteamiento, el movimiento de pensionistas ha llegado a un punto de confluencia con el movimiento de la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria.

En vista de las circunstancias, creemos necesario dar un salto en la lucha por las condiciones de trabajo, las pensiones y una vida dignas. Hemos concluido que tenemos tres certezas comunes: por una parte, las pensiones son un asunto que afecta a todos/as, tanto a pensionistas actuales, como a futuros; por otra parte, la lucha por unas condiciones laborales dignas es algo ineludible; y por último, es necesario garantizar los derechos sociales.

A fin de cuentas, hemos de construir un modelo socio-productivo que ponga la vida en el centro, y que priorice el cuidado y la sostenibilidad del planeta. Los ejes principales de ese modelo son el reparto de la riqueza, el liderazgo del sector público, la universalidad de los derechos, la normalización del euskara, la ordenación del equilibrio territorial según las necesidades de la sociedad (sector primario, infraestructuras, sector de mercancías y transporte...).

Así las cosas, hemos decidido poner límites a la precarización de las condiciones de trabajo y de vida, precarización que se ha disparado en las últimas decadas con el pretexto de la crisis. Asímismo, hemos acordado impulsar una dinámica de movilizaciones en demanda de medidas que garanticen unas condiciones laborales, pensiones y vida dignas. Para lo cual proclamamos la siguiente Tabla de Reivindicaciones:

**Derogación de los recortes de las pensiones aprobados en las reformas de 2011 y 2013:**

- Jubilación a los 65 años.
- Jubilación anticipada a los 61 años con 30 años de cotización. Reducción de los coeficientes reductores.
- Extensión de la reducción de la edad de jubilación a nuevos sectores por su naturaleza especialmente penosa y peligrosa, como el transporte.
- Tomar 15 años en consideración para calcular la pensión.
- Garantizar el poder adquisitivo de las pensiones (subida por lo menos como el IPC)
- Eliminación del factor de sostenibilidad de las pensiones.

**Otras medidas sobre pensiones:**

- Pensión mínima de 1.080 euros.
- Garantizar la financiación del sistema de pensiones vía cotizaciones sociales e impuestos.
- No penalización del cómputo de cotizaciones en los contratos a tiempo parcial. Cómputo día trabajado igual a día cotizado.

**Dejar sin efecto de las reformas laborales de Zapatero y Rajoy:**

- Ultraactividad indefinida de los convenios colectivos.
- Garantizar la prioridad aplicativa de los convenios territoriales sobre los estatales.
- Impedir que un convenio de ámbito inferior pueda empeorar las condiciones de uno de ámbito superior.
- Dar marcha atrás en los recortes de derechos laborales.




carta de los derechos sociales
euskal herriko eskubide sozialen karta

**ELA | LAB | STEILAS | ESK | HIRU | ETXALDE | EHNE**